

B

BARREN

TOKIKOM

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi

Roberto Merino





*ikasi eta lan, guk biak
egiten ditugu!*

**MARTXOAK 6
(11:00etan)**

Ate irekiak

Naturarekin bat izan eta...

BARRENen aurpegi baten bila dabizela, eta neuri egin didate gonbidapena. Hori dela eta, gure ingurumena zaintzeko dagoen inplikazioaz (edo faltaz) hitz egingo dut. Pasa den astean, Sallobente auzoan Iberdrolak bere zutoin elektrikoaren inguruan zuhaitzak kentzen ziharduela, herritar bat konturatu zen neurritz kanpo zebiltzala, astakeria egiten erreka ertzean, dena suntsitzen. Handik gora ere beste tarte zabal bat suntsitu nahi dute gainera.

Esaterako, gazteen *botelloia* zaintzeko indar handia egiten dute, baina horrelako lanak zaintzea noren lana da? Multinazionalak direla-eta, dena ongi egiten al dute?

Lan horien segimendua beharrezkoa da, eta ez da hainbeste ardua. Adierazgarria da oso gertaera horiei garrantzirik ez ematea. Naturaren alde apustu egiten dugunok badakigu horrelako ekintzak inguruan bizi diren espezieei bizirauteko zailtasuna areagotzen dietela. Are, Europako bisoia bezalakoei, galtzeko arriskuan dauden espezieei. Erreka bat ez da ura eramateko

kanala, bizirik dagoen ekosistema baizik.

Guk etxean altzariak, sukaldea edo berogailua beste behar dute ingurumena animaliek.

Ingurumena maitatzea ez da leku polit batean ondo sentitzea soilik. Bertan bizi direnen bizitza gehiago ez eragozte, desorekak ulertzea, errespetua izatea da. Gizarteak beharrezkoa du naturarekiko harremana ez galtzea, oreka oso estua baita bertan.

Martxa honetan, eta garapenaren izenean, noraino jarraitzeko prest gaude? Hemendik hogeit urtera hurrengo belaunaldiak zer jasoko duen pentsatzeak beldurra ematen du.

Guztion esku dago erlazio honi eustea, eta gehiago ez haustea.

Iñaki Arregi



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Hemendik hogeit urtera hurrengo belaunaldiak
zer jasoko duen pentsatzeak beldurra ematen du”**

**Roberto
Merino**
kantuan
jarri dugu!



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

 ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

ROBERTO MERINO

“Antxon Urrusolok ezagutarazi gintuen, ‘Izar berriak jaio dira’ izeneko artikuluekin”

Nekez egongo da Elgoibarren Roberto Merino ezagutzen ez duenik. Kaleak garbitzen aritzen da gaur egun, baina gaztetan, Johny and Rober taldeko gitarra jotzailea izan zen. 1971. urtean sortu zuten taldea, eta bi urtean ospe handia lortu zuten hemen inguruan, bereziki Eibarren, bere jaioterrian. TVE Espainiako telebista katearen *La gran ocasión* saiorako ere grabatu zuten, Venezia dantza lekuan, eta makina bat kontzertu eman zituzten garaiko dantzaleku ezagunetan. Gaur egun ere jotzen du gitarra, baina lagunartean bakarrik. Elkarrizketa honetarako ere hartu du gitarra, eta www.ElgoiBARREN.net atarian daukatzue bideoa ikusteko.



Noiz eta zelan hasi zinen gitarra jotzen?

15-16 bat urte genituen, gitarrarekin hasi nintzenean. Ni neu gitarra akademian jarduna nintzen ikasten, eta gero, parrokiako abesbatzan hasi ginen lagun talde bat. San Andres parrokian eta Karmengo elizan jotzen genuen, bataio, jaunartze eta ezkontzetan, batez ere. Hala, duo bat sortzea erabaki genuen, eta Johny and Rober izena jarri genion. Manuel Mutilva eibartarra eta biok osatzen genuen taldea. 1971. urtean izan zen hori.

Elizan jotzetik musika modernoa jotzera pasa zineten.

Hala da. Garaiko musika jotzen genuen guk. Simon and Garfunkelen eta Los Modulosen bertsioak, bestekak beste. San Andres parrokiako sotoan entsaiatzen genuen, parrokoak lagatako lokal batean. Tarteka,

geure kantuak sortzen ere saiatzten ginen, baina gehienak bertsioak izaten ziren. Eibarko auzoetako jaietan ibiltzen ginen gitarrarekin. Kontratutako taldeei baimena eskatzen genien pare bat kantu jotzeko, eta atsedendian hartzen genien lekukoa. Jendea oso gustura egoten zen.

Lehiaketaren batean ere jo zenuten, hala ere.

Bai, bai. Sasoi hartan Antxon Urrusolo *El Correo Español*-en berriemilea zen Eibarren, eta hark *El Correo* antolatzen zuen lehiaketa batera aurkeztea proposatu zigun. Ezaguna genuen Antxon, eta baietz esan genion. Abesti batzuk prestatu genituen, eta halaxe joan ginen. Gogon daukat Los Modulos taldearen *Todo tiene su fin* kantua eta *Aleluya* jo genituela. *Aleluya* ingelesez zen, eta nola edo hala moldatu ginen.

Nik oso ingeles gutxi nekien, baina Johny ni baino gehiago zen, eta diskoa entzunaren entzunez, ikasi genuen zerbait. Amañako antzokian izan zen lehiaketa hura, eta lehenengo gelditu ginen. Izen handiko lehiaketa zen. Gure aurretik Expresion Sonorak ere irabazi zuen, taldeka. Los Dalton, Copula eta abar ere han izan ziren, garaiko talde eza-gunenak. Lehiaketa irabazteak indar handia eman zigun. Antxon Urrusolok orduan ere txori asko zeuzkan buruan, eta orri beteko elkarrizketa egin zigun. Urrusolok ezagutarazi gintuen, *Izar berriak jaino dira* izenburuko artikulua erekin. Itzela izan zen. Lehiaketa irabazteagatik, 4.000 pezeta eman zizkiguten, eta Kanposanto tabernara joan ginen hirurok afaltzera.

Taldearen aurkezpena, baina, beranduago izan zen. Zer oroitzen dituzu?

Oso egun polita izan zen. Boleran izan zen gure aurkezpena, gaur egun Bingoa dagoen lekuan. Dantzaleku handi bat zegoen han orduan, eta bete egin genuen. 1972ko uztailean izan zen, Amañako antzokian lehenengo gelditu ostean. Antxon Urrusoloren elkarrizketa argitaratu ostean, sarri jo genuen han. Izen bat eman zigun Urrusolok, eta ahal izan genuen etekin handiena ateratzen saiatu ginen. Eibarko Arrate Hoteleko dantzalekuan ere behin baino gehiagotan eman genituen kontzertuak. Baita aste barruan ere. 18:00ak aldera hasten ginen, eskolak amaitzen zirenean. Gazte jende ugari etortzen zen hara, motxila eta guzti. 16-17 bat urteko gazteak izaten ziren, eta guk orduan 20 inguru urte izango genituen.

Eibar beti izan da oso musikazalea. Talde ugari sortu dira, eta izen handikoak asko. Bazegoen denontzako lekurik?

Bai, bai. Oso ondo moldatzen ginen elkarrekin. Estilo asko nahasten ziren, eta hori oso aberasgarria da. Kontzertu berean ere elkarrekin aritzen ginen asko.

Eibartik kanpo ere jo zenuten?

Bai. Venezia dantzalekuan sarri jo genuen eta Bribiescan (Burgos) ere izan ginen behin, 1972an.

Venezia dantzalekua aipatu duzu. TVEk antolatutako lehiaketa batean ere parte hartu zenuten han. Kontaiguzu zelan izan zen.

TVE telebista kateko *La gran ocasión* saiorako grabazio bat izan zen. Hainbat lekutan ibili ziren saio hartakoak, talde berrien bila, eta Venezia ere etorri ziren. Miguel de los Santosek aurkezten zuen, garai hartako aurkezle ezagunak. Programa haren berri izan genuenean ez genuen zalantzarik izan. Aurkeztu egin ginen. Telebistako saio nagusirako kanporaketa antzeko bat izan zen hura, eta ez genuen horren txarto ere egin, kantu modernoan atalean zortzigarren gelditu ginen-eta. Bi abesti jo genituen, eta Simon and Garfunkelen beste kantu bat eraman genuen prestatuta badaezpada, kanporaketa gainditzen bagenuen jotzeko. Ez genuen haren beharrik izan, baina. Gogoan daukat kontzertu hartarako nire arrebak alkandora hori-hori bat ekarri zidala Bilbotik.

Gaur egun ere izaten dira halako lehiaketak. Ez duzu inoiz aurkeztea pentsatu?

Ez, ez. Gauza horiek bukatu ziren. Txima luzeekin ibiltzen ginen garai kontuak dira horiek. Barixakuan elkarrizketa hau irtetzen denean ere, sorpresa handia hartuko dute askok. *Jajaja*.

Kontzerturen bat izango duzu bereziki gogoan, ala?

Bolerako lehenengo kontzertua sekulakoa izan zen, baina anekdota polit bat badaukat, bai. San Andres parrokiara gitarra jotzen ari nintzen egun batean sekulako lotsa sentitu nuen. Taldekide guztiak isildu, eta

punteoa egiten nuen nik. Hala ari nintzela, gitarrako lehenengo soka hautsi zitzaidan, eta tonu bat goragotik jarraitu nuen, ahal izan nuen moduan. Taldekideak, jabetu zirenean, denak batera hasi ziren gitarrak astintzen. Itzela izan zen hura. Bat ez genuen asmatu. Jauna hartzeko zain zeuden umeak gora begira jarri ziren, eta halako isiltasun bat sortu zen han... Zerua gainera zetorkidala sentitu nuen.

1972an bazenuten izen bat Eibarren, baina berehala laga zenioten musika egiteari. Zer dela eta?

Soldadutza madarikatuagatik. Kanpora bidali ninduten, eta herren gelditu zen gure taldea. Soldadutzatik bueltan, batu ginen noiz edo noiz berriro, baina lagunartean jotzeko bakarrik. Gitarra sekula ez dut laga nik, eta gaur egun ere, sarri hartzen dut etxean eta lagunarteko afarietan-eta.

Garbitzailea izanda, ezin zenuen, ez, gitarra hautsa hartzen laga.

Hori, hori. Zelan lagako dut nik gitarra? Zuk ez dakizu ondo zer nolako bizipoza ematen didan. Elgoibarren ere zenbat kontzertu eman ditut nik! Gogoan daukat Gaucho tabernan eman nuen kontzertuetako bat. Lankideak ere beti aritzen zaizkit: 'Aizu, Roberto, ekarri gitarra eta armonika hurrengo bazkarira'. Orain bi urte, Gabonetan, gitarra bat laga nuen Gauchon, Duo Plaentxikoak sarri joaten direlako taberna horretara. Joaten ziren bakoitzean han jarduten zuten. A zer nolako giroa sortzen zen han! Askok estimatzen ditut nik Duo Plaentxikoak. Eibarko Inazionean ere sarri entzun nituen nik jotzen.

Ainara Argoitia

Roberto Merino, Venezia dantzalekuan, Miguel de Los Santos TVEko aurkezlearekin, La Gran Ocasión saiorako egindako grabazio batean.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: baren@elgoibarkoizarra.com.

Hitzez irabazi ezin denean...

Ostirala, Kataluniara gindoazen zortzi elgoibartar Vall Foscano mendi eskiko karrerara.

Gu, hiru furgona batean. Bossost herrira iristean, kontrola. Tamalez ohituak gaude jazarpen polizialera, baina hau gehiegitxo izan zen! Hasieratik oso modu gogorrean tratatu gintuzten; banan banan galdeketa egin ziguten. Furgona goitik behera begiratu, eta han mendi eskiko material teknikoa besterik ez! Ez zegoen nora eta zertara gindoazen zalan-tza izpirik. Furgonetako papelak ondo eguneratuak, lekuz kanpoko ezer ere ez, eta halere mehatxuak, kolpeak eta umiliazioa behin eta berriz. Furgonetako hiruretatik bik bularrean ukabilkadak jaso genituen, baita buruan kolpe batzuk eta masaileko batzuk ere. Hala ere suerteko sentiarazi ginduen gertaera bat izan zen. Ez ginen izan Vall Fosca bidean gelditu gintuzten bakarrak; mendi eskitik ezagutzen ditugun lagun batzuk ere han ziren, eta hauek tratu txarragoa jaso zuten: bati lepotik heldu, eta metrailetaren kainoia bularrean jartzeraino.

Hitz egiten arazoitu ezin dutenez, besterik ez zaie geratzen. Honen aurrean gure arma, hitza, hau publikoki salatzea.

A.I.15392807B,
zortzi eskiatzaileraren izenean

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeez gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutizik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: baren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:




ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILEA Zalao Amaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldagi, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Andres
Alberdi

Euskal
atsotitz batak
ziok bakoitza
bere zoroak
bizi duela (bere
obsesioak,
alegia), eta halatsu
natorrek gaurkoan.
Zer, buruan? Neure zoroa!
zer bestela?



Anjel
Ugarteburu

Ikasturte berriari begira eginiko aurrematrikulan, banian EAEko gurasoek beren seme-alabentzat zein hizkuntza-ereduren aldeko aukera egingo zuten jakiteko gogoia. Eta datuek ez naitek harritu: lau ikasle berritik hiruk D ereduari (euskaraz, alegia) ikasteko aukera egin ditek. Guraso gutxi izan duk beren seme-alabak A ereduari (erdaraz, alegia) matrikulatu dituztenak.

“Lau ikasle berritik hiruk D ereduari ikasteko aukera egin ditek”

Salomon jakintsuaren pareko hantuste-itxuran, hara hor non agertu zaigun “ebidentzia baten egiaztapena” omen dela esanez Zelaa sailburu andre pertxenta. Eta erredimitu dizkik orain arteko bere aurrekoak. Alegia, orain arteko gobernu abertzaleek gurasoen aukerei buruz esaten zutena ez zela gezurra, eta haien agintepean eginiko aukerak ez zirela presiopean eginikoak, eta ematen zituzten datuak fidagarriak zirela. Eta gu, xalo eta inozok, horretaz ezjakitun, hi! Berak esan behar zein den errealitatea!

Bestelakoak izan dituk, hala ere (nola ez ba!), PPko Iñaki Ojartzabal (Oyarzabal) argiaren esanak. Oraindik ere ziok, gurasoek ez dutela askatasunik izan aukera egiteko, hainbat gurasori presioa egin zaielela A ereduari ez matrikulatzeko, datuek ez dutela gizarte honetako gurasoen nahiaren argazki erreala islatzen.

Ezin onik hartu gizarajoak! Hizkuntza-politika espainola obsesio bihurturik, hura inposatu nahi denei. Ez konturatzea euskal gizarte bakesu, solidario eta integratu batean nahi dituztela gurasoek beren seme-alabak! Zer diok, Anjel?

Zer esango joat, ba! Neu ere ustekabean harrapatu nau txandak, baina beti jagok zeri ekin eta gaurkoan ere hari aproposa eskaini hik.

Herri bakoitzak, merezi dituen agintariak. Hala dok esaera. Gehiegizkoa begitantzen jatak, horraitio, hainbat politiko mereziak ditugula onartzea. Ez dok egia.

Gure akordioan eta bakean, euren langabezia ikusten juek zenbait kargudunek; horregatik, gatazkaren hazia ereiten saiatzen dituk, jarlekua arriskuan ikusiz gero. Hortxe jagok kokka. Gatazkan bizi dituk ondo eta eroso; zertarako aldatu? Horiei bost axola gehiengoak, are gutxiago euskararen iraupena. Ez juek ezagutzen, ez juek maite. Haren galeran jagok euren pagotxa, nahiz eta horrenbeste esaten ausartu ez.

“Gehiegizkoa begitantzen jatak, horraitio, hainbat politiko mereziak ditugula onartzea”

Salomon erregea aipatu duk eta haren epaia harira jatok autu honetan. Emakume biren arteko auzia zuan tartean. Ume bakarra eta bi ama haur beraren miran, bata hanketatik tiraka eta bestea eskuetatik. Salomon errege eta epailearengana jo eta hark bai ederki asmatu: - *Erdi-erdtik moztuko dugu eta erdi bana izango duzue.*

Konforme epaiairekin ama ez zena. Benetako amak ez joan horrelakorik nahi:

- *Ez, ez; emaiozu oso-osorik berari.*

Umea, haren bizitza eta etorkizuna maite zituen amari eman zion, horrenbestez, epaile zuzen hark. Euskara bera duzue umea.

Politikoak aipatu eta ez neukek nahi denak zaku berean sartu. Berez eginkizun duina den hori susmagarri bihurtu dok hainbat jarlekuzalaren eruz. Gizarte solidario eta integratua lortzeko dihardutenak nagusitu ahal dituk guztion onerako!



Elgoibarko Udala



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



xabiereuzkitze



Azpeitian jaio zen Xabier Euzkitze, 1966an. Betidanik izan du hitz jario aparta, eta gazterik hasi zen bertsolaritzan nabarmentzen. Hitz jardun horrek lagundu zion kazetaritzan bidea egiten ere. 17 urterekin hasi zen irratian lanean, eta azken urteotan telebistan dihardu, aurkezle lanetan ETB1en. Horrez gain, Saharautz gobernuz kanpoko erakundeko bozeramailea ere bada. Bertsolaria, kazetaria, aurkezlea, kantaria... zer da, benetan, Xabier Euzkitze?

Ainhoa Andonegi

“Gai politikoei tartea egiteko erreparo gehiago dago ‘Kalakan’ gaur egun”



Alor askotan aritu izan zara. Nola definituko zenuke zeure burua?

Ez dakit hainbeste gauza egin ditudan! Gauza da beti eskaparatean nagoela eta egiten dudan guztia azaltzen dela. Ni baino gehiago egin duen jende asko dago ezkutuan. Nire burua definitzekotan, komunikatzailea naizela esango nuke.

Komunikatzeko euskara batua erabiltzen duzu, batez ere. Zein leku hartu beharko luke euskalkiek komunikabideetan?

Nik oso argi daukat ETBn euskararen munduarentzat ari garela, eta euskararen mundua ez da Azpeitia, Gipuzkoa edo Euskal Autonomia Erkidegoa. Euskararen mundua herri txikia da, baina askok uste dutena baino zabalagoa. Iparraldean ere asko ikusten gaituzte, eta gure audientzietan sartu ez arren, niretzako jende hori oso garrantzitsua da. Haiengana iristeko dau-

kagun modu bakarra euskara batua da. Ni oso kritikoa naiz, esate baterako, *Wazemank*-en erabiltzen duten euskararekin. Hura ez da gipuzkera; Asteasuko euskara da. Alkainek ez tula egiten duenean ere grazia dauka, eta euskara batuan berdin berdinekin egingo luke. Pertsonaia batzuek erabili dezakete euskalkia, baina, orokorrean, gure hizkunta politikak ezin du horretara mugatu.

Wazemank aipatu duzu. Zu ere imitatzen zaituzte han. Zer iruditzen zaizu?

Ondo egiten dute. Alkain imitatzailerik bikaina da, eta ni aski ongi ezagutzen nau nire erpin guztiei heltzeko ere.

Gogoratzen al zara nola iritsi zinen komunikabideen mundura?

Oso modu bitxian. Bazen Azkoitian gure familiaren ezaguna zen taxista bat. Ni ordurako bertsolaritzan hasia nintzen: gazteen txapelketetan puntan nenbilen, eta garaiko ber-



tsolaririk onenekin hasita nengoen saioetan. Ezagun horrek bazekien mundu hori gustatzen zitzaidala, eta bere lagun bat bisitatzea joan behar genuela esan zidan. Lagun hori Euskadi Irratian ardura handiko gizona zen. Bazkal ondorenean han hasi zen: “*Honi gustatzen zikok eta ez al lixoke aukera bat emango?*”. Ni adina harritu zen hura ere. Hilabete beranduago kiroletarako kolaboratzailea bilatzeko kasting-a egingo zutela esan zigun. Aurkeztu, eta neuri eman zidaten aukera. 20 urte egin arte han aritu nintzen. Soldadutzatik bueltan (neu izan naiz soldaduska egin duen azken tontolapikoe-tako bat) irratian hasi nintzen berriz. Telebistan hasi nintzen ondoren, eta hor segitzen dut.

Kalakan ikusten zaitugu eguen gauetan. Gobernu aldaketak izan al du eraginik?

Guk gaiak proposatzen ditugu, eta zuzendaritzaren onespena behar izaten dugu. Lehen ere ez ziren gai guztiak zuzendaritzaren gustukoak izaten, eta orain ere gertatzen zaigu. Gaur egun, gai politikoei tartea egiteko erreparo gehiago dagoela somatzen dut. Uler nezake, beharbada, alde konstituzionalista gure zuzendaritzak nahi lukeen bezain ondo ordezkaturia ez ote dagoen irudipena edukitzea, eta ez da funtsik gabea, gainera. Guk ahalegin ikaragarriak egin izan ditugu beti gure gizarteko masa sozial horrek ere bere ordezkartza izan dezan, baina azkenean, gure gizartea den bezalakoa da eta zenbait eremutatik euskaraz ondo moldatzen diren ordezkariak bilatzea ez da erraza izaten.

Audientziaren menpe bizi zarete. Eraginik nabaritu al duzue?

Orain dela 25 urte telebistan lan egitea askoz atseginagoa zen alde horretatik. Orduan lan onak balio zuen, eta orain, berriz, askoz gehiago balio du biharamunean jasotzen dugun audientziaren datu hotz horrek. Horren menpe bizi gara, eta askotan zeure buruarekin gustura geratzeak baino gehia-

go balio du. Esklabotza handi samarra ezartzen digu audientziaren datu madarikatu horrek.

ETB oro har aldatu da Gobernu berriarekin?

Eragina izaten ari da. Denon ahotan egon diren aldaketak izan ditugu, eguraldiaren mapa, adibidez. Baina beno, beste ildo batzuk markatzeko borondatea ere ikusten da, eta beste esparru batzuetako jendeari lekua egitekoa ere bai. Denei eman behar zaie asentatzeko denbora.

Entzun izan dizut ETB1ek zuzendari propioa behar duela. Oraindik ere hala pentsatzen al duzu?

Bai, sentsazio hori gero eta indartsuagoa da. Nire ustez, zuzendaritzan behar da pertsona bat ETB1engatik adarrak hausteko prest egongo dena, eta ETB2ren aurrean euskarazko katea defendatuko duena. Figura horrek lehen ere behar zuen, eta orain, gehiago.

Pilota saioak aurkezten ere aspalditik zabilza. Nondik datorkizu pilotarako afizioa?

Azkoitik pilotarekiko lotura oso estua dauka. Gure gurasoak eta aiton-amonak hantxe, plazan bertan, bizi izan dira beti, eta gaur egun kosta egiten zait pilotalekua hutsik edo jendea bertan futboleak jokatzen ikustea. Gure garaian pilotalekua jendez gainezka egoten zen. Nik iturri hartatik edan dut, eta Azpeitiatik Azkoitirako hainbesteko joera izatearen arrazoia pilota zaletasuna da. Odolean daramat pilotazaletasuna. Seme nagusia nire afizio berberak izatera kondenatu dudala uste dut. Hari ere bertsolaritza eta pilota izugarri gustatzen zaizkio. Zer egingo diogu, ba! Kondena txarragoak ere izango dira.

Bertsolaritza gazte laga zenuen, baina urte asko pasatu dira ordutik. Asko aldatu da denbora horretan bertsolaritza?

Aldatu da, baina aldatu beharra ere bazegoen. Aldatzen ez dena, bere horretan hil egiten da. Nik bertsolaritza bizirik nahi dut, eta gizartea aldatzen den heinean, bertsola-

ritzak aldatu beharra zeukan, eta dauka. Alferrik da nik ezagutu nuen mundu hari nostalgiaz begiratzea. Mundu desberinak dira, baina horrek ez dit erreparorik ematen. Badira gauza batzuk naturaltasun handirik gabeak iruditzen zaizkidanak. Adibidez, txapelketetan doinu eta neurri luzeak erabiltzea, eta gogoan hartu ezin daitezkeen bertsoak entzuteak perezax pixka bat ematen dit. Era horretako bertsoek ere behar dute lekua, baina ez horiek bakarrik. Potorik izan den ala ez jakiteko ere, kasik behartuta zaudete papera eta luma eskuan izatera. Beste bizitasun bat eskertuko nuke.

Bertsotan Elgoibarrera etorri izan zara. Zer nolako oroitzapena daukazu?

Askotan izan nintzen, eta oso pozik, gainera. Oso herri kuttuna nuen. Badira sei-zortzi herri aparteko gozotasunez gogoratzen ditudanak, eta inolako zalantzarik gabe, Elgoibar da horietako bat. Nire lehenbiziko saioetako batzuk Elgoibarren izan ziren. Oso gazte nintzela, Lazkao Txiki eta hainbeste miresten nituen beste bertsolari handiekin kantatzeko lehen aukera Elgoibarren eman zidaten. Javier Arriola lagun handia nuen, eta Angel Ugarteburu ere ezagutzen nuen. Elgoibarren beti ondo hartu izan nauten sentsazioa daukat.

Betirako laga duzu bertsolaritza ala ikusten duzu bueltatzeko aukerarik? Ez dut uste. Lehen ere ez nuen aukera handirik ikusten, eta denbora aurrera doan neurrian, gero eta zailagoa ikusten dut.

Bidaian joateko bertsolari bat eta parrandarako pilotari bat? Bidaian joateko Mikel Mendizabal. Lehen ere behin baino gehiagotan joan izan naiz berarekin Estatu Batuetara, eta moldatzeko oso erraza da. Nahita zerbait egin beharra daukazu harekin haserretzeko, eta hala ere, ez zenuke lortuko. Beste hainbatekin ere joango nintzateke, baina Mikelekin oso gustura egingo nuke bidaia. Parrandarako, Mikel Gofñi izango da, akaso, onena.

“ETB1engatik adarrak hausteko prest egongo den pertsona bat behar da zuzendaritzan”

Movimiento140.com herri plataformak abiadura muga handitzea eskatu du.

Zer iruditzen zaizu autobideetako abiadura muga orduko 140 kilometrora igotzea?



Agurtzane Vicuña
49 urte, etxekoandrea

Nik ez nuke abiadura muga igoko, 120 kilometro orduko nahikoa dela iruditzen zaidalako. Orain ere batzuk gainditzen dute abiadura hori, eta gero ere gaindituko lukete. Gainera, hemengo autobideak ez dira azkar ibiltzeko modukoak, errebuelta asko dago.



Edurne Gabilondo
46 urte, inmobiliaria agentea

Autoa hartzeak beldurra ematen dit, eta ez dut asko gidatzen, baina ez zait ondo iruditzen abiadura muga handitzea. 120 kilometro orduko abiadura ondo dagoela uste dut. Gidari askok ez dituzte abiadura seinaleak errespetatzen, baina mugak egotea ondo dago.



Imanol Carcedo
33 urte, mekanikoa

Gaizki. Nik uste dut istripu gehiago egongo liratekeela. Hemengo autobidea, gainera, oso txarra da. Donostiatik Elgoibarrerako bidean errebuelta asko dago, eta leku askotan orduko 120 kilometrora joatea ere gehiegizkoa da. Nik ez nuke muga handituko.



Ion Iriondo
46 urte, ingeniaria

Zati batzuetan igoko nuke, bai. Gaur egungo autoak ondo prestatuta daude, eta leku askotan 120 kilometro orduko abiadura baino gehiago hartzea ez da arriskutsua. Hiru errail dauden lekuetan, esaterako, lasai ibili daiteke. Beste zati batzuetan kontuz gidatu behar da.

I. URTEURRENA

BORJA UZURIAGA MENDIZABAL



2009ko martxoaren 1ean hil zen,
25 urte zituela.

*Oroituko zaitugu betiko
begirada goxodun mutiko
zure oroimena galtzen
ez dugu sekula utziko*

Zure lagunak



Kiroldegiko igerileku txikiko ura ez da beroa egoten astean zehar: “Umeekin joatea gustatzen zaigu igerilekura, baina igerileku txikiko ura ez dute nahikoa berotzen astean zehar. Asteburuetan beroago egoten da ura, baina lehen gehiago berotzen zuten. Bazkideak gara, eta urte osoko kuota ordaintzen dugu, baina, zertarako? Ume txikiekin joateko ura beroa egotea beharrezkoa da. Ikastaroak daudenean bakarrik berotzen dute ura behar adina, eta, gure ustez, edozein unetan joateko moduan eduki beharko litzateke ura”.


Herriko kaleak txakur kakaz beteta egoten dira: “Lotsagarria da! Kanean txakur kaka pila bat daude, eta herriari zikin itxura ematen diote. Beste herri batzuetan plastikozko poltsak jartzen dituzte herriko zenbait lekutan, txakur jabeek hartu ahal izateko. Garai batean jarri zituzten Elgoibarren txakurrek kaka eta pixa egiteko lekuak, baina ez dakit oraindik badauden, eta okerragoa, ez dakit norbaitek erabili izan dituen. Nire ustez, Udalak esku hartu behar du gai honetan. Zorrotza izan behar du, eta gaizki aparkatutako autoei isuna jartzen zaien bezala, txakur jabeek ere isunak jarri behar zaizkie. Herria polita dago, asko dotoretu dute azkenaldian, baina garbi zaindu behar dugula iruditzen zait”.



Txalo bat Udalarri olio birziklatzeko ontziak jarri dituelako: “Herriko zenbait lekutan jarri dituzte etxean erabilitako olio birziklatzeko ontziak. Beste herri batzuekin konparatuta, berandu jarri dituzte Elgoibarren, eta egia esan, bazen garaia! Natura zaindu behar dugu, eta birziklatzea oso garrantzitsua da. Herriarrei erraztasunak eman behar zaizkie, eta hilabetean behin kamioia etortzea ez zen baxteroso. Orain, baina, beste lan bat dago egiteko, eta akaso, edukiontziak jartzea baino garrantzitsuagoa: jendea kontzientziatu behar da. Kanpainak egin behar dira, eta herriarrei erakutsi egin behar zaie birziklatzen”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



I. URTEURRENA

BORJA UZURIAGA MENDIZABAL



*Zenbat kontu kontatzeko
zenbat kantu dantzatzeko
zenbat besarkada emateko
hain goize agur esateko.*

Etxekoak

2009ko martxoaren 1ean hil zen, 25 urte zituela. I. urteurrenako meza zapatuan, zapatuan 27an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.

Mugikortasuna errazteko lau proiektu eta enpresa berriak sustatzeko plan bat aurkeztu ditu Elgoibarko Udalak

Proiektuak finantzatzeko, 1.197.000 euroko laguntza jasoko du Espainiako Gobernutik

Herriko mugikortasuna hobetzeko lau proiektu aurkeztu ditu Elgoibarko Udalak, eta plan bat, ekintzaileei lagunduz, ekonomia sustatzeko. Plan horiek finantzatzeko, Estatuak emandako dirua erabiliko du Udalak: 1.197.000 euro. Proiektuek jaso dute Espainiako Gobernuaren ordezkariaren onespena, baina Madrildik etorriko den erantzunaren zain dago Udala.

Hirigunetik kiroldegirako igogailua egitea da proiektuetako bat, eta, horretarako, 500.000 euroko aurrekontua izango dute. Lan hori iaz egin nahi zuten, baina aurrekontuetan izandako gorabehera batzuen ondorioz, atzeratu egin behar izan zuten. Era berean, Kultur Etxean ere igogailua jarriko dute (140.000 euro). Bi aukera aztertu zituzten: aldamenetik jartzea edota eskaileren zuloan jartzea, baina praktikotasuna aintzat hartuta, aldamenetik jartzea erabaki dute.

Horrez gain, eskailera mekanikoak jarriko dituzte Basarten, Erretxindi, Mintxeta eta Basarte bertako mugikortasuna errazteko. Basarte auzoko jolas parketik gora jarriko dituzte eskailera mekanikoak, bi tramotan. Estatuak emandako diruarekin finantzatu da obra (170.000 euro), eta Udalak jarriko du ekipamenduetarako dirua (250.000 euro). Udaletxeko beheko solairua berritzea izango da laugarren proiektua (120.000 euro). Horri lotuta, udaltzainen aldagelak Errosario kaleko eraikin berrira aldatuko dituzte, sotora, eta alderdi politikoaren bulegoak, berriz, eraikin horretako beheko solairura. Leku aldatze hori, baina, Udalaren kontura egingo da.



Osasun zentrotik kiroldegira bitartean egingo dute igogailua.

Enpresa edo negozio berriak sortu nahi dituztenei laguntzeko, azpiegitura berri bat sortuko du Udalak, Lanbideko bulegoak dauzkan ondoko eraikinean (160.000 euroko aurrekontua). 167 metro koadroko azalera izango du, eta bost bulego zabalduko dituzte han. Bulegoak errentan emango dizkiete ekintzaileei.

San Frantzisko kaleko lurra lakarrago lagatzen ari dira, ez labantzeko



San Frantzisko kaleko lurra lakarrago lagatzen ari dira egunotan Irungo Artia enpresako beharginak. Nafarroa Plaza inguruan hasi, eta Madalara bitartean ari dira lanean. Euria egiten duenean, labaintzeko arrisku handia izaten da kale horretan, eta herritarrek minik ez hartzeko, lurrari tratamendu mekanikoa eta kimikoa ematen ari zaizkio orain. Baldosak txuriagoak eta lakarragoak geratzen dira kalearen tratamendua egin ondoren. Oina gainean jarritakoan nabarmena da aldea. Baldosak larrakagoak dira, eta nekezago labaintzen da orain. Lan horretarako, 15.000 euro inguruko aurrekontua izango dute. Artia enpresako arduradunen arabera, Elgoibarko Udalak “ardura handia” dauka gai horretan, eta, lehenago ere herriko beste zonalde batzuetan egin izan dituzte era horretako lanak. Besteak beste, Plaza Handian edota Herriko Antzokiaren inguruan.

Izena **Edu Arrillaga**



Edu Arrillaga argazkilariaren bi argazki sartu dituzte Emigrazioaren Memoria Grafikoaren liburuan. Argitalpen horretan Espainiatik kanpora emigratu zutenen iragana eta oraina jasotzen duten irudiak biltzen dira. Arrillagaren lanen artetik, Boliviara emigratu zuten albaitarien bi argazki aukeratu dituzte.

Zenbakia **637**

LAB sindikatuak emandako datuen arabera, 637 langabe daude Elgoibarren. Debabarreneko eskualdean, berriz, 3.401 lagun daude lanik gabe. Lana daukatenen egoera ere ez dela ona zehaztu du sindikatuak, eta lan baldintzak nabarmen okertu direla gaineratu du. Horren kontra, eta eskualdeko lanpostuak zain daitezela eskatzeko, protesta deialdia egin dute biharko. Manifestazioa Eibarko Untzaga plazatik abiatuko da, 12:00etan.

Irudia **Zuhaitzak moztuta**

Ermuaren-Sallobente inguruan goi tentsioko linea bat jartzeko, Iberdrolak behar edo komeni dena baino landaretza gehiago kendu duela salatu du Okil Beltzak taldeak. Haritzak, arkaziak, haltzak, urritzak, lizarrak, erramuak eta beste zenbait landare moztu dituztela azaldu dute, eta horietako batzuk, "oso zaharrak". Guztira 130 metro erreka-ertz "txikitu" dituztela esan dute, Elgoibar "ekologikoago eta iraunkorrago" baten alde lan egiteko asmoarekin sortu zen taldeko kideek. Otsailaren 18an jarri zuten salaketa bake epaitegian. Iberdrolak naturarekiko izan duen "sentsibiltate eza" erakutsi, eta "astakeria" hori gelditu nahi du Okil Beltzak-ek. Esan dutenaren arabera, langileak ez dira berriz azaldu.



Trinitate jaietako azokarako izena emateko epea zabalik

Udalak eta Debemenek antolatuta, maiatzaren 29an izango da Trinitate jaietako azoka. Elgoibar-ko baserritar guztiak daude parte hartzera gonbidatuta, eta, interesatuek martxoaren 15a baino lehen eman beharko dute izena. Informazio gehiago 943 744 067 telefonoan.

Munilla gotzainak emango du meza, domekan

Jose Ignacio Munilla Gipuzkoako Gotzainak emango du 11:30etako meza domekan, Lourdesko Ama Birjinaren Ospitalitatea elkartearen urteko batzarraren harira. Meza ondorenean izango da batzarra, musika eskolan, eta 14:30ean bazkaltzeo batuko dira Sigma jatetxean. Horrez gain, Lourdesko argazkien erakusketa zabalduko dute asteburuan, Kultur Etxeko sotoan.

Bi lagun atxilotu dituzte, ustez drogak edukitzeagatik eta ertzainei erasotzeagatik

Ertzaintzak 18 eta 21 urteko bi lagun atxilotu ditu Elgoibarren: bata, ustez drogak edukitzeagatik, eta, bestea, ertzain baten kontrako atentatu delitua eta desobediencia leporatuta. Domekan jazo ziren gertakariak herriko taberna batean, goizaldeko 2:00ak aldera.

1956koen kinto bazkaria Zarautzen, maiatzaren 28an

1956. urtean jaio eta aurten 75 urte egiten dituztenek anai-arte-ko bazkaria egingo dute martxoaren 28an, Zarautzen. 12:30ean meza izango dute Frantziskotarren elizan, eta, han, Azpillaga eta Intxausti bertsolariak hartuko dute parte. Bazkaria Aiten Etxe jatetxean egingo dute. Izena eman nahi duenak ondorengo telefono zenbakietara deitu behar da: 943 120 536 (Pedro Laca) edo 943 831 825.

Aingeru Guardako jaiak

PLAZARA, GAZTEEN ESKUTIK

Mendaron nortasun handiko auzoa da Plaza, A-8 autobideak apur bat zokoratuta daukan arren. Auzolanaren ikurra izan da urte askoan, eta horren adibide garbia da Aingeru Guardako ermita, auzotarren ekimenez berritutako base-liza. Haren inguruan urteetan batu dira mendararrak, martxoaren lehenengo egunez. Hala ere, badira zortzi bat urte Aingeru Guardako jaiak galdu zirela. Ezinak behartuta laga zieten Miguel Angel Arriolak eta Silberio Txurrukak jaiak antolatzeari. Aurten, baina, erreleboa hartu diete herriko hamar gaztek, hamar *plazakumek*.

Ainara Argoitia

Plazatarren eguna izaten zen Aingeru Guarda eguna. Miguel Angel Arriolak eta Silberio Txurrukak, esate baterako, aparteko ilusioarekin bizi zuten egun hori. Plazatarrek izanik, makina bat ordu ematen zituzten jaiak antolatzen, baina “gustura” aritzen ziren, “auzoaren alde lanean”. “Jai handia izaten zen. Sasoi batean hiru erromeria ere izaten ziren Plazan”, gogorarazi du Miguel Angel Arriola Errebironekoak. Silberio ere oroitzapen onak gordetzen ditu. Aitarenean ekin zion Silberio jaiak antolatzeari, “gazte-gaztetan”, eta azken urteetan eskutik ibili ziren Miguel Angel eta biak zeregin horretan. Laga beharra iritsi zitzaie, baina, orain zortzi bat urte, eta haiekin batera amaitu ziren Aingeru Guardako jaiak. Aurten, hala ere, Aingeru Guardako baselizaren bueltan batuko dira ostera ere, “plazatarren jai handian”.

“Gorkak, semeak, eman zidan abisua. Sekulako poza hartu nuen Aingeru Guardako jaiak antolatu behar zituztela esanez etorri zitzaidanean”, aitortu du Miguel Angelek. Gorka Arriola berak eta beste bederatz lagunek osatzen dute jai batzordea: Eukene Gurutzagak, Alex Aranberrik, Oier Quirogak, Jon Zuloagak, Borja eta Lurdes Rodriguez neba-arrebek, Iñigo Lazkanok eta Amaia eta Joseba Mendikute neba-arrebek. Batzorde horren lana, baina, nekez uler daiteke Migel

Angel eta Silberioaren laguntzarik gabe, Joseba Mendikutek aitortu duenez. “Ohorezko bazkideak dira”.

2008ko martxoaren lehenengoan Eibarren egindako afari batean bururatu zitzaion gazte koadrila horri jaiak berreskuratzea. Pentsatu eta egin. Orditik hiru-lau afari egin dituzte, eta Mendaroko Udalak eta herriko enpresa eta saltokiek emandako diruarekin osatu dute egitaraua. “Guk ezagutu ditugun jaien antzeko zerbait antolatu nahi izan dugu. Lehenengo urtea izanda, apal hasi gara, baina honek jarraipena izango du. Datorren urterako ideia batzuk ere sortu dira. Bezperan erromeria egitea, adibidez. Dena ezin da lehenengo urtean egin, hobetzeko aukera izateko”, adierazi du Joseba Mendikutek. Plazan hazitako ondo-rengoak dira guztiak, baina haiek ezagutu duten auzoak ez dauka garai batekoaren itxura handirik. Ezta Aingeru Guardako jaiak ere, hein handi batean.

Autobideak baztertutako auzoa

Aingeru Guardako ermita N-634 errepi-

de ondoan dago, Mendaroko Intxusai jate-txearen aldamenean. Errepidearen beste aldean, zubi bat zeharkatuta, etxe multzo bat dago: Plaza. Garai batean izan zenaren erdia da auzoa autopista eraiki zutenetik. 1971n, autopista egin aurretik, 32 familia bizi ziren, eta gaur egun, berriz, zazpi familia, 27 lagun guztira: Errebero (4), Artañola (3), Andikoetxe (5), Txurruka (8), Errota (4), Erremerteri (1) eta Eperkua (2). Beste bizitasun bat zeukan auzoak orduan. Hiru taberna zeuden –Kimuku, Otxoa eta Intxusai–, eta taberna bakoitzaren bueltan, erromeria bat egiten zen Aingeru Guardako egunean, autobidea eraiki aurretik. Egundorretan bi meza izaten ziren ermitan, eta meza ostekoa, ondoren, han bertan jartzen zuten taberna moduko batean. Festa handia, hala ere, domekan egiten zen, jaietan. Auzotarrek emandako diruarekin, bertsolariak eta trikitilariak ekartzen zituzten, eta herri-kirolak ere egiten ziren. Ondoren, bazkaltzeko batzen ziren guztiak, Intxusai jatetxean lehenengo urteetan, Toki-Alai tabernan beste behin, eta Aizpe gastronomia elkartearen, gero.

1983an urak hartu zuen Aingeru Guardako ermita, eta auzolanaren eraiki zuten berria, Altzolara begira



Tente, ezkerretik eskuinera: Lurdes Rodriguez, Amaia Mendikute, Gorka Arriola, Eukene Gurrutxaga, Alex Aranberri, eta Oier Quiroga. Makurtuta: Iñigo Lazkano, Jon Zuloaga, Borja Rodriguez, Joseba Mendikute eta Manex Rey.

Aingeru Guardako ermita bera ere Plaza auzora begira zegoen, harik eta 1983ko uholdeek harrapatu zuten arte. Errepidetik ia metro bat beherago zegoen basiliza, eta sari hartzen zuen urak. 83ko uholdeetan, baina, kalte handiak izan zituen, eta konpontzea baino berria egitea errazagoa izango zela erabakita, Erdi Aroko ermita hura bota eta beste bat eraikitzea hitzartu zuten plazatarrekin, Anjel abadearekin egindako batzar batean. “Abadetxean batu ginen, zer egin pentsatzeko, eta neuk esan nion Don Anjeli hobe izango zela beste bat egitea. ‘Zeinek egingo du, baina?’ galdetu zidan, eta ‘geuk’ esan nion nik. Oilo txabolak ere egiten genituela eta apur bat handiagoa egitea izango zela kontua”, azaldu du Silberio.

Fatima Lariz Intxusaikoak eman zuen lur saila, Gipuzkoako Gotzaitegiak jarri zuen dirua, Bloques Etxeberria enpresak erositako prezioan saldu zien materiala plazatarrei, eta mendaroar askoren artean eraiki zuten ermita. “Manuel Loiola *Panizok* egin zuen teilatuko enkofratua. Sasoi hartan ospitala egiten ari ziren, eta behin etorri ei zen hango enkargatua *Panizo* enkofratzailea zen galdezka. Ezetz erantzun zioten hemen ari zirenek. Enkofratzen beharrean eskopetak egiten jardun zuela hark bizi osoan. Ospitaleko enkarga-

tuak serio erantzun ei zien: ‘Ez nuke nahi hona mezatarra etorri beharra izaterik’, azaldu du Silberio. “Goiko gailurrari eusteko erdian posteren bat behar zela esaten zuten haiek, eta guk poste gabe egin genuen, barru dena libre lagata. Zutik dirau oraindik, gainera”, zehaztu du Miguel Angelek. Zaharraren estilo bereko ermita eraiki zuten, baina Plazara begira beharrean Altzola aldera begira.

1994ko azaroan inauguratu zuten ermita. Jose Maria Setien Gipuzkoako gotzainak eman zuen meza, Anjel Bazterretxea herriko abadeak lagunduta, eta jende askok ermita kanpotik jarraitu zuen, telebista bidez. Milioi erdi pezeta behar ziren obra amaitzeko, eta Anjel Bazterretxeak erreparo gabe esan zuen sermoitan. Esan eta bete. Meza hartan bertan batu zen dirua: 550.000 pezeta.

“Mendaroar guztien jaia”

“Aingeru Guardako jaia mendaroar guztien jaia dela esaten dugu, erdia euren dela haren”, azaldu du horren harira Silberio. Arbola sartzearekin hasten da jaia, bezperan. Bihar sartuko duten arbola hogeita bat urtean erabili dute, baina lehen, urtean-urtean berria erabiltzen zuten. Txurrukak ondo gogoan dauka arbola bere lekutik atera zietenekoa: “Elgoibarren *rebista* bat zegoen egun hartan.

Neskak erdi gorri agertzen ziren han, eta hemengo batzuk ere joan ziren ikustera. Goizaldean, etxerakoan, gure arbola lurretik atera eta beste leku batean sartu zuten, nola-hala. Indarra izango zen han ere, badakizu. Guk hartu genuen sorpresa hurrengo egunean!”.

Silberio eta Miguel Angelen ondorengoei bihar sartuko dute arbola, 18:00ak aldera. Kanpaiak joko dituzte ondoren, eta hala hasiko dituzte orain zortzi urte galdutako jaia.

Hona hemen prestatu duten egitaraua:

MARTXOAREN 1a, ASTELEHENA

Bi meza: 8:00etan eta 11:00etan

MARTXOAREN 7a, DOMEKA

12:00: Meza

12:30: Trikitilariak: Idurre Arriola eta Maitte Olazabal mendaroarrak. Ondoren, herri kirolak izango dira. Fausto Mugerzak jardungo du aizkoran, Unai Salegi *Sarobek* trontzan, eta Juanjo Agirregabiriak trontzan eta txinga eroaten. Ondoren, Gotzon Zulaika eta Jon Larrañaga mendaroarren txanda izango da, kaskara edo lokotx batzen.

‘Sasikopotzu’ usadio zaharrari jarraituz, Motxaila Eguna ospatu zuten zapatuan Mendaron

Aizbeltzko kobazuloan hasi zuten eguna, eta gauerdira arte luzatu zen jaia

Jende ugari batu zen zapatuan Mendaron, Motxaila Eguneko ospakizunetan. Aizbeltzko kobazuloan hasi zuten eguna hogei bat lagunek, baina egunak aurrera egin ahala, jende gehiago batu zitzaien, eta gauerdira arte luzatu zen jaia. Aizbeltzen poesia emanaldia eta monologoak izan ziren, eta handik Gaztetxera jaitsi ziren gero guztiak, bazkaltzera.

Antolatzaileen esanetan, berrogeita hamar bat lagun batu ziren Gaztetxean, lagun giroan. Potaje jitanoa dastatu ostean, kontzertu flamekoaz gozatzeko aukera izan zuten bazkaritan bildu zirenek. El Cabrero eta Camaron kantaore andaluziarren kantuak abestu zituzten, eta saio horrek erakarrita, musikari bat baino gehiago gerturatu ziren Mendarora. Ondoren, clown-magia saio bat izan zen, Andoni Egaña mendaroraren eskutik. Haritz Etxeberria *Ministro* eta Jokin Uranga bertsolarien kontra ere ausartu zen Mendaroko Andoni Egaña, koplakantua. Iluntzean herrian zehar ibili ziren poteoan, bertsolariak lagun hartuta.



Aizbeltzko kobazuloan hasi zuten Motxaila Eguna hogei bat lagunek.

JOXE MARI BETELU AZURMENDI

Josune naiz, honela deitzen zidan Beteluk. Ez nuen uste horrenbeste estimatzen gintuzuenik, eta harro sentitzen naiz, baina harrotasun hau eskaintzen dizuet nire ondoan sentitu zaituztedan denoi, eta batez ere nire moduan geratu zaren iloba Makari. Bai, altxor bat zara, eta beharbada ez dugu nahikoa estima-

tzen, momentu hauek gertatu arte. Behin ere ez da berandu, ez horixe. Hartu ezazu nire muxurik goxo eta samurrena, hori baino gehiago merezi duzu eta.

Ta zuei, Joxemai eta Asen, asko paseatu.

Josune Makazaga



Erretratu zaharra



1970

Aste honetako erretratu zaharra Kontxi Ariznabarretak ekarri du BARRERera. Inauteriak pasatu berri dira, baina oraindik ere jende askoren oroimenean daude kolore biziko mozorroak eta festa egunak. Erretratu honetan ere dotore mozorrotuta ageri dira mutil gazteak. Gogora ditzagun zeintzuk diren. **Zutik, ezkerretik eskumara:** Jose Luis Barrenetxea, Patxi Iraola, Belarreta, Jesus Iriondo eta Mikel Ariznabarreta. **Behean:** Agustín Elizburu eta Anbroisio Egaña.

Gure berbak Hiztegia: interjekzio batzuk

- ◆ **BAI ZURI EREI:** Adibidez, zerbait ona opa digunari erantzuteko erabiltzen da. *–Egun on! –Bai zuri ere!* Edo, bestela, ondorengo hau: **Baitta zuri ere!** Edota **Igualmentel**
- ◆ **BASTANTE!** Nahikoa, nahiko ondo. **Bastante eifi:** Nahikoa/nahiko ona egin. *Bai, bai. Astia bastante ein dau. Oiñ ein daban eurixa ere, ba mesederakua da patatiantzako ta.*
- ◆ **BATEK JAKINI!** Auskalo! **Batek dakil.** *Batek jakik noiz etorriko dan elurra aurten!*
- ◆ **BELTZA IZANI!** Zerbait makurra gertatzen denean erabili ohi da. *Beltza dok, ba! Oinguan ere dana gaizki erten jakuk!*
- ◆ **BENGA!** Animoak emateko, aginduren bat emateko edo norbait estu hartzeko erabiltzen da.
- ◆ **BIENI!** Ondo. *Jaixan tokatze zanian da, bien! Baiña asteguanian da hola ezin izete zan juan noiznahi, lana igual eitxeko etxian da.*
- ◆ **BIENKE:** Gaur egun, ez da ia erabiltzen. **Jakina, erregular** eta halakoen baliokidea dirudi, eta bestek esandako zerbaiti

berrespena emateko edo hura ontzat emateko erabiltzen da normalean. **Beinke, binke** aldaeretan ere bai.

◆ **BIHAKO!** Zer erremedio! Gauzaren bat etsi-etsian egin behar dela adierazten du, interjekzio modura erabiltzen da asko, aditz-partizipioaren laguntzarekin (haren aurretik nahiz atzetik) edo bakarrik. **Bihako** aldaera ere erabiltzen da, bai eta **Biharko** ere, nahiz azken hau askoz gutxiago. *Gustatze jatzu basarrixa? Bihako! Nora jungo nok, ba? / Zelako lokatzia! Orduan hor, abarkakin da, botiñekin da, jute giñuazen, neska laguntzera-ta juteko. Bihako! **Bihako + aditzal (bihako eifi):** *–Bixar lan pixka bat eittia tokatzen jaku. –Bihako eifi, nagusixa hasarrauko ezpada.**

◆ **BUENO!** *Hantxe errekan birek esplotau zeбен han [bi bonbak]. Jota esplotau zeбенian, jota ura goora baiña! Zelako txorrua! Buenooo!*

Jesus Mari Makazaga

Krisiak emakumeen eta gizonen parekidetasunean duen eraginari buruzko mahaingurua izango da eguaztenean

Udalak, bestalde, berdintasun planaren laburpena banatuko du etxeetan

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko eguna dela-eta, hainbat ekintza antolatu ditu Merkataritza eta Berdintasun Sailak. Martxoaren 3an izango da lehenengo ekintza: krisi ekonomikoak emakumeen eta gizonen arteko parekidetasunean daukan eraginari buruzko mahaingurua, alegia. Nekane Jurado (ekonomilaria), Joxean Egaña (IMHko zuzendaria), Axun Larrañaga (Mekako zuzendaria) eta Josune Gardoki (Elgoibarko Lanbide zerbitzuaren arduraduna) izango dira hizlariak. Moderatzaile lanak Lorea

Arakistain kazetariak egingo ditu. Ekitaldia 18:30ean izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Berdintasun plana

Berdintasun plana burutu du Udalak, eta, lan hori herritarren artean ezagutarazteko asmoa dauka. Datozen egunetan liburuxkaren laburpena jasoko dute elgoibartarrek etxean, eta, bertan, Berdintasun Planaren inguruko azalpenak emateaz gain, berdintasun zerbitzuaren inguruko informazioa ere aurkituko dute.



Bezeroek ordaindu gabe utzitakoak kudeatzeko ikastaroa izango da martxoaren 9an eta 10ean

Bezeroek ordaindu gabe lagatakoak kudeatzeko ikastaroa antolatu du Debegesak. Debabarreneko enpresentzako ikastaroa izango da, eta besteak beste, finantza arloko kudeatzaileek, administrariak edota komertzialek hartu dezakete parte. Martxoaren 9an eta 10ean izango dira saioak, 8:30etik 13:30era. Ikastaroaren prezioa 150 eurokoa da. Izena emateko azken eguna martxoaren 5a izango da. Interesatuak Debegesara jo behar dute: 943 82 01 10 telefono zenbakira deituta, edo pymes@debegesa.com helbide elektronikora mezu bat idatzita.

Palestinari buruzko hitzaldia eta mahaingurua izango dira martxoaren 6an

Gaszte Asanbladak antolatuta, Palestinari buruzko hitzaldia izango da datorren martxoaren 6an, 10:00etan hasita. Ondoren, 11:30ak aldera, hezkuntza, feminismoa eta etxebizitzari buruzko mahaingurua egingo dute. 13:30ak inguruan luntxa izango da bertaratzen diren guztientzat. Ekitaldiak Kultur Etxeko sotoan izango da.

I. URTEURRENA



MARI CRUZ BELAUSTEGUI ZUAZO

2009ko otsailaren 27an hil zen, 44 urte zituela.

EZ AGURRIK, EZ ADIORIK, GERO ARTE BAKARRIK.

Zure koadrila



I. URTEURRENA



MARI CRUZ BELAUSTEGUI ZUAZO

2009ko otsailaren 27an hil zen, 44 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 27, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztatik.



Jon Gurrutxaga musikari elgoibartarrak Jon & Sugramas proiektua jarri du martxan

Gaur gauean eskainiko dute estreinako kontzertua, Durangoko Izkin tabernan

Jon Gurrutxaga Arima Beltzako abeslari ohia eta UEK taldeko bate-riajoleak Jon & Sugramas proiektua jarri du martxan. Abesteko duen grina asetzeko asmoz, Elgoibarko musikaria orain dela bi urte inguru hasi zen proiektu honetako kantuei forma ematen, eta kantatu sorta bat bildu zuenean, taldea osatzea erabaki zuen. Sugearekin lotutako landarean oinarriturik, *Sugramas* izenaz bataiatu dute banda, eta aspaldiko lagunekin batu da elgoibartarra taldea osatzeko: Legen Beltza taldeko Ekaitz Garmendia eta Ivan Hernández azpeitiarrak gitarra eta baterian, eta Andran taldeko Andoni Mujika elgoibartarra, baxua.

Jon & Sugramas proiektuan ingelesez eta euskaraz abestutako rocka izango da nagusi. Bluesaren eragina ere nabaria da, baina, batez ere, 70eko hamarkadako rock taldeen eragin zuzena dauka.

Diskoa maiatzean

Diskoa grabatzen hasi aurretik, bi kontzertu eskainiko ditu taldeak. Otsaila-



Ekaitz Garmendia, Jon Gurrutxaga, Ivan Hernandez eta Andoni Mujika.

ren 26an, lehena, Durangoko Izkin tabernan, eta martxoaren 6an bestea, Arantzako Aterpean. Bi kontzertu horiek eskaini osten, martxoaren 26an, Bilboko Koba estudioetan sartuko dira Xanpe

soinu teknikariarekin batera beraien lehen diskoari forma emateko asmoz. Estreineko lana maiatzaren hasieran aurkeztuko dute, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik.

I. URTEURRENA

JUAN MARI ANDONEGI AGIRREGOMEZKORTA

2009ko otsailaren 27an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 27, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zareteno eskerrak aldeztu aurretik.



ESKERTZA

TERESA UNAMUNZAGA BEREZIARTUA

2010eko otsailaren 22an hil zen.


Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



IOSU MERINO

Eskalatzailea

Kiroldegiko rokodromoan bide berriak jartzeko lanean jardun du Iosu Merinok, Jon Gurutz Lazkoz eskalatzaile nafarrarekin batera. Maila guztietarako bideak jartzeko ahalegina egin dute: 5 eta 8a+ maila artean, hamabost ibilbide ditu Elgoibarko rokodromoak.



“Kiroldegiko rokodromoa konpletoa da, baina txiki geratu da”

Zein ezaugarri dituzte rokodromoan jarri dituzten bide berriak?

Rokodromo batek behar dituen oinarrizko bideak dira. Elgoibarko rokodromoa txikia da, eta jende guztiarentzako bideak jartzeko zailtasunak ditugu, baina batzuek maila altuagoko bideak eskatu dituzte, eta horiei erantzuteko ahalegina egin dugu. Koloreekin bereizten ditugu bideen mailak: zuria, errazena; gorria apur bat zailagoa; eta, beltza, zailena.

Kiroldegiko rokodromoa, oro har, nolakoa da?

Konpletoa da, baina txiki geratu da. Bost edo sei lagunentzako ondo dago, baina hamar hamabi lagun biltzen garenean ez da guztiontzako lekurik egoten. Orain dela hamazortzi urte inguru jarri genuen rokodromoa, eta, kiroldegia bera bezalaxe, txiki geratu da. Gaur egun kirola egiteko zaletasun handia dago, eta lehen baino askoz jende gehiagok

egiten du kirola. Kiroldegiak urte asko ditu, eta herritarren beharrak lehen baino handiagoak dira orain.

Zer da zuretzako eskalatzea?

Zaletasuna, bizimodua eta aldi berean, nire buruarekiko etengabeko borroka. Azkenaldian ez naiz nahi beste ibili. Suhiltzaile izateko oposaketak prestatzen aritu naiz, eta ezin nuen nire burua arriskatu. Proba fisikoak egiteko sasoi betean egon behar nuen, eta mendian edo eskaladan istripuren bat izanez gero, ezin izango nituzke probak gainditu. Oposaketak gainditu ditudanez, orain lasaiago ibiliko naiz.

Eskalatzea kirol arriskutsua dela uste dute askok.

Eta gidatzea ez al da arriskutsua? Neurriak hartuz gero, eskalatzea ez da arriskutsua. Jendeak gauzak ondo egiten baditu, ez da istripurik egoten. Konfiantza gehiegi har-

tzen denean gertatzen dira istripuak. Mendian badaude kontrolatu ezin daitezkeen faktoreak, eta hor istripuren bat gertatzea errazagoa da, baina rokodromoan oso zaila da.

Elgoibarren badago eskaladarako zaletasunik?

Betikoak gabiltza eskalaten. Ez dago jende berririk. Egia esan, ez dago eskalaten hasteko aukera handirik. Rokodromoan bide errazak badaude, baina ez dira edonorentzat modukoak. Gainera ikastaroak ere oso gutxi antolatzen dira.

Zer behar da eskalatzeko?

Gogoia. Gorpuzkerak ere laguntzen du, baina norberak bere mailan eskalatu behar du. Garrantzitsuena ez da gora igotzea; ondo igotzea baizik. Eskalada kirol lehiakorra da, baina norberak bere buruarekin lehiatu behar du, ez besteekin.

Eskola kirola sustatzeko hitzarmena sinatu dute zazpi kirol taldek

Guztira 225 ikaslek eman dute izena egitasmoan



Eskola Kirola Elkarteak (Udal Kirol Patronatua eta ikastetxeak) eta Eskola Kirola egitasmoan laguntzen duten zazpi kirol taldek lankidetzara hitzarmena sinatu zuten martitzenean, udaletxeko pleno aretoan. Gaztetxoekin lan egiten duten kirol taldeak dira hitzarmena sinatu dutenak: CD Elgoibar, Sanlo EKT, Elgoibarko Saskibaloia Taldea, Mintxeta atletismo taldea, Elgoibarko Igeriketa Taldea, Lagunak Pilota Eskola eta Lagun Taldea.

Aurre benjamin, benjamin eta alebin mailako gaztetxoekin lan egingo dute Eskola Kirola izena eman duten talde horiek; guztira, 225 ikasleekin. Udal Kirol Patronatuak diru-laguntzak emango dizkie hitzarmena sinatu duten taldeei.

Gaur hasiko dira helduentzako igeriketa ikastaroak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak helduentzako igeriketa ikastaroa antolatu du. Oinarrizko mailako saiok eskainiko dituzte, otsailaren 26tik ekainera bitartean. Saiok ostiraletan izango dira, 19:00etan. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena.

Larretxea aita-semeek irabazi zuten domekan Urrezko Aizkora txapelketako finalerdia

Elgoibarko Ikastolan jokatu zuten joan zen domekan Urrezko Aizkorako finalerdia, eta bertan, Larretxea aita-semeek izan ziren nagusi. 23 minutu eta 19 segundo behar izan zituzten lanak amaitzeko; Floren Nazabal txapelkun handiak eta Arkaitz Jauregik baino sei segundo gutxiago. Txapelketako final handia bihar jokatu da, Azpeitin.



EMAITZAK

FUTBOLA

Beasain 0 – Haundi 2 (3. maila)
Elgoibar 1 – Lazkao 1 (Erreg. Pref.)
Kostkas 2 – Elgoibar 2 (Jub.)
Trintxerpe 1 – Elgoibar 3 (Kad. A)
Elgoibar 2 – Arizmendi 1 (Kad. B)
Elgoibar 2 – Zumaia 3 (Ohorezko inf.)
Elgoibar 0 – Antiguoko 5 (Txiki)
Elgoibar 4 – Irintxa 3 (Aleb.)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa
Lagunak 22 – Beloki 9 (2. mailako nag.)
Aretxabaleta 22 – Lagunak 21 (3. mailako nag.)
Añorga 22 – Lagunak 20 (1. mailako kad.)
Pala
Lagunak 14 – Añorga 25 (1. mailako nag.)
Altzatarra 25 – Lagunak 17 (2. mailako nag.)

SASKIBALOA

CD Internacional 20 – Anboto 26 (Neskak)
Gabi 54 – Bosco Plastic 47 (Mutilak)

ESKUBALOA

Probintziako Txapelketa

Alkorta Elg. 34 – Irungo 25 (Sen. mut.)
Tolosa 31 – Beristain Elg. 25 (Jub. mut.)
Irunena 36 – Pneumax 40 (Kad. mut.)
Lauko 30 – Leitzaran 17 (Kad. neska.)
Bankoa Elg. 39 – Arrate D 7 (Inf. mut.)
Txariduna Elg. 10 – Pakita Altzariak 15 (Inf. mut.)
Aterpe Elg. 13 – Lezo 13 (Inf. neska.)
Bera Bera 18 – Ikus Elg. 18 (Inf. neska.)
Astigarraga Elg. 9 – Legazpi 9 (Inf. neska.)

Euskal Liga

Basauri 12 – Tecnifuelle Elg. 31 (Sen. neska.)
Grupo Eibar Elg. 39 – Leitzaran 22 (Jub. neska.)
Aiala Zarautz 28 – IMH Elg. 21 (Kad. neska.)

AGENDA

SASKIBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 27
13:00 Anboto – Bera Bera (Neskak)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 27
13:00 Elgoibar – Sporting Herrera (Kad. A)
16:30 Haundi – Cultural Durango (Pref.)
18:30 Elgoibar – Bergara (Neskak)

Domeka, 28

11:00 Elgoibar – Ordizia (Aleb.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 27
11:45 Aterpe Elg. – Zarautz B (Inf. neska.)
16:00 Pneumax Elg. – Hondarribi (Kad. mut.)
17:30 IMH Elg. – Headialde (Kad. neska.)
19:00 Tecnifuelle Elg. – Muskiz (Sen. neska.)

Domeka, 28

10:30 Beristain Elg. – Katilu (Jub. mut.)

ESKU PILOTA

Barixakua, 26
21:45 Lagunak – Lizardi-Igeldo (3. mailako nag.)
22:30 Lagunak – Alde Zaharra (Pala, 2. maila nag.)

LANA

ESKAERA

- Edozein lan egiteko prest. ☎638 520 765
- Interna edo orduka etxeetan, sukaldari laguntzaile edo zerbitzari moduan edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎618 096 628
- Neska gaztea haurrak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo tabernan lan egiteko prest. ☎657 142 376
- Igeltsero talde bat edozein erreforma egiteko prest. ☎650 987 612
- Gizonezkoa, bigarren mailako ofiziala, edozein lanetarako prest. ☎606 612 834
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎648 603 029
- Emakumea etxeko lanak egin, nagusiak zaindu edo tailerlean lan egiteko prest. ☎685 761 979
- Klase partikularrak ematen dira. Maila eta irakasgai guztiak. Ingelesa ere bai. Adin guztietarako. ☎652 763 264
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Goizez. ☎626 329 979
- Mutila banatzaile lanak egiteko, eraikuntzan jarduteko, nagusiak zaintzeko edo zamalanetarako prest. ☎689 985 800
- Neska euskalduna, etxeko titularekin (UNED), nagusiak zaintzeko prest. Goizez. ☎675 711 658
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Geriatriako titularekin. ☎943 531 608

- Ostalaritzan lan egiteko prest. Janari landua prestatzen esperientzia daukat. ☎659 320 774
- Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Goizez, arratsaldez edo gauez. ☎671 476 869
- Edadeko jendea zainduko nuke arratsaldeetan. ☎943 743 251
- Gizonezkoa lanerako prest. Nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile aritzeko edo beste edozertarako. ☎665 513 851
- Emakumea garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko prest. Interna, externa edo orduka. ☎662 247 584
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka lan egiteko. ☎663 786 976

ESKAINNTZA

- Jatetxe baterako sukaldari laguntzailea behar da. ☎943 121 262
- Bi kamarero behar dira: bata aste barruan lan egiteko, eta bestea, asteburuetarako. Kontratuarekin. ☎662 327 003 (12:00etatik aurrera)
- Mutil euskalduna behar da, 20-35 urtekoa, komertzial arloan gaitasunarekin eta auto propioarekin. ☎685 714 572

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Lokala salgai Errosario kalean. Berria, lanera sartzeko prest eta instalazio guztia eginda. Masajista baten-tzako egokia. ☎ 616 175 672 (Txomin)

- Borda salgai Elgoibarren. Obretako baimena eta hektarea bateko lursaila ditu. ☎ 605 761 545
- Pisia alokatzen dut Mendaran. ☎ 658 603 478

GARAJEAK ETA MOTORRA

- Santa Ana kalean marradun garajea alokagai, kotoxea edo furgoneta bat sartzeko egokia. ☎ 646 966 198
- Garaje itxia salgai Plaza Txiki inguruan. ☎ 628 521 579
- Aterpe taberna azpian garajea alokatzen da. ☎ 943 741 837
- SEAT Ibiza salgai; 1.4, gasolina. SS-BH, 58.000 km. Merke, 2.200 euro. ☎ 659 358 141

BESTELAKOAK

- Urrezko pultsera bat galdu nuen duela bi aste. Norbaitek aurkitu badu, deitu mesedez. ☎ 943 743 251
- Hamster batentzako kaiola oparitzen da. ☎ 678 976 368

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARRENEN** eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak	Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 5 euro	Astebete : 10 euro
2 aste : 8 euro	2 aste : 17 euro
3 aste : 10 euro	3 aste : 25 euro

III. URTEURRENA

RAMON UNTZILLA ARANBERRI



*Kaixo, Ramon
ta memorian zure irria
ta memorian zure begiak
ta memorian zure keinua
ta memorian zure izatea
ta memorian bizi zaitugu
ta memorian zure aiduru
ta memorian zaitugu katigu
ta memorian zaitugu*

Etxekoak



2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela. III. urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 27an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerak aldeztu aurretik.



• Zorionak, **Joseba**, gaur 4 urte handi egin dituzulako. Familiakoen, eta batez ere Eleneren partez. Muxu handi bat. Egun ona pasal!



• Jadanik 8 urte igaro dira jaio zinenetik, **Mikel**, maitea. Har itzazu denon zorionik beroenak.



• Zorionak, **printzesa**, zure 8. urtebetetzean. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Aneko**, zure 4. urtebetetzean. Asko maite zaitugu, sorgintxo!! Etxekoan partez, bereziki aitatxo eta amatxo.



• Ongi-etorri mundura, **txikito!** Familiakoan partez.



• Zorionak, **Naia**, bihar 3 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoan, eta, bereziki, Julenen partez!



• Duela 3 urte izar zaparrada erori zen, eta politena gurekin geratu! Zorionak, **maitia!** Guraso, amama Lurdes eta aitita Manuel.



• Zorionak, **Asier**, hilaren 18an 7 urte egin zenituelako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Mikell** Zein azkar egin dituzun 2 urte. Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Alexen partez.



• Zorionak, **Andrey**, atzo 4 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Pablo**, zure 5. urtebetetzean. Muxu handi bat guraso, aiton-amona, izeba-osaba eta lagunen partez.



• Zorionak, **Duna**, 3 urte egin dituzulako. Gero eta maitasun gehiago ematen diguzu. Carmen eta Jose aiton-amonak.



• Zorionak, **Ainhoa**, gaur 12 urte egin dituzulako. Muxu handi bat Nagoreren eta gurasoan partez.



• Txoko-marrubizko 11 muxu, **Ainhitzel!**



• Zorionak, **Alora**, atzo 3 urte egin zenituelako. Muxu bat etxekoan eta bereziki, lhintzaren partez.



• Zorionak! Asteburuan urte zoragarri hau ospatzeko prest? Pastelak zure kontu!



• Zorionak, **Eneko eta Helene**, martxoaren 2an 5 urte egingo dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Aitanaren partez.



• Zorionak, **Leire**, hilaren 27an zure lehen urtebetetzea ospatuko dugulako. Familiakoan partez.

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro.
Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.
 Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



URBERU SAGARDOTEGIA

**Haragia eta arraina parrillan: berezitasuna
 Astebukaeran zabalik**

Elorriaga auzoa - ITZIAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 19 92 37

OKINDEGIA

28 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

	24 ORDUZ
26	Yudego
27	Zabaleta Goizez: Etxeberria (S.A.)
28	Zabaleta
1	Etxeberria (<i>Errosario</i>)
2	Ibañez
3	Garitaonandia
4	Etxeberria (S.A.)
5	Fernandez

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik
www.elgoiBARREN.net



27 zapatua

Erakusketa

11:00 Lourdeseko argazkiak
Lourdeseko Ama Birjinaren
Ospitalitateak antolatuta, Kultur
Etxeko sotoan. Arratsaldez
18:00etatik **20:00**etara
zabalduko dute, eta domekan,
11:00etatik **14:00**etara.
Elkartearen urteko batzarra eta
bazkaria egingo dituzte
domekan.

28 domkea

Tailerra

10:45 'Otoitza eta bizitza'
Santa Klarako komentuan.

3 eguaztena

Mahaingurua

18:30 'Krisi ekonomikoaren
eragina emakume eta gizonen
arteko parekidetasunean'
Udaleko Merkataritza eta
Berdintasun Sailak antolatuta,
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Bilera

18:30 Mendaroko Plan
Orokorra
Hirigintza Planari buruzko bilera
izango da Mendaroko
udaletxeko pleno aretoan.

4 eguena

Hitzaldia

19:30 'Ostegun bidaiariak'
Alpeetan mendiz mendi eta por-
tuz portu eginiko ibilaldiei buruz-
ko hitzaldia izango da. Hizlaria,
Eñaut Izagirre. Kultur Etxeko hi-
tzaldi gelan.

5 barixakua

Erakusketa

19:00 'Patchwork'
Haizea emakume taldeak
antolatuta, Kultur Etxean.

LUDOTEKAKO EKINTZAK



Martxoaren 13an
Txuri Urdin jauregira
irteera

Bazkideek 6 €
Bazkide ez direnek 11 €

Izenematea eta informazio
gehiago Ludotekan

GAZTELEKUKO EKINTZAK



Gaur arratsaldean II.
Birtziklapen tailerra
Emauskoekin.
Animatu eskulan berezi
bat egitera 18:00etan
gaztelekuan.



«Teniente corrupto»

26, barixakua: 22:15
27, zapatua: 19:00/22:15
28, domeka: 19:00
1, astelehena: 21:30

Estatu Batuak, 2009. Zuzenda-
ria: Werner Herzog. Aktoreak:
Nicolas Cage, Eva Mendes, Val
Kilmer. Iraupena: 121 minutu.
Terence McDonagh polizia te-

nienteak ez du bizimodu lasaia,
joko eta droga munduan harra-
paturik baitago. Senegalgo bost
etorkinen hilketa ikertzen ari da
orain.




Gure gomendioa

Autore eta zientzia fikzio zinema

Marxoak 4, eguena, Herriko Antzokian

Ongarri zineklubak lau filmeaz osatutako zikloari ekingo dio eguenean. Autore zinema eta zientzia fikziozkoa uztartuko ditu. Lehenengo filma *Distrito 9* izango da. Hilaren 11n, *Delta* filma eskainiko dute jatorrizko bertsioan. Azken bi filmak *Moon* eta *Liverpool* izango dira.



GIDA KOMERTZIALA

AZKEN EGUNAK!

2009-2010

AZKEN EGUNAK!

Gida komertziala prestatzen ari gara, zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

943 743 704

edo helbide honetara idatzi:

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Zerikasi

IKASTAROAK

Internet + e-administrazioa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: kontsultatu
Hasiera data: 2010-3-1
Non: Elgoibarren
Izena emateko azken eguna: kontsultatu (943 257 991)

Emakumea eta sexualitatea

Norentzat: Emakumeentzat
Hizkuntza: Kontsultatu
Hasiera data: 2010-3-2
Non: Elgoibarren
Izena emateko azken eguna: Kontsultatu

Garapen pertsonala

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gaztelania
Noiz: Martxoaren 30ean
Non: Elgoibarren
Izena emateko: 943 429 003

Brikolajea

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Kontsultatu
Hasiera data: 2010-3-15
Non: Elgoibarren
Izena emateko: 943 257986

Google Itzultzailea eta Euskalterm

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gaztelania
Hasiera data: 2010-3-01
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«Donde viven los monstruos»

28, domeka: 16:30

«Distrito 9»
(Ongarri zinekluba)

4, eguena: 21:30

Zeelanda Berria-Hegoafrika, 2009.
Zuz.: Neill Blomkamp. Akt.: Jason Cope. 111 min. Estralurtarren ontzi bat Lurrera helduko da, Hegoafrikara, baina errefuxiatu gisa. Estra-

lurtarrak kontzentrazio esparru batean sartuko dituzte, eta *apartheid* erregimena ezarriko diete. Handik urte batzuetara, gizakiek haiek inzer egin erabaki beharko dute.

herritik kanpo



miren albarran

Londresen bizi da aspaldian Miren Albarran elgoibartarra. Ford etxeak Dagenhamen daukan lantegian ari da beharrean, beka batekin. Londresko hirigunetik ordubetara dago Dagenham, metroz, eta hain justu ere, horixe da Londrestik gutxien gustatzen zaiona: batetik besterako distantzia luzeak. Gainerakoan, “oso gustura” bizi dela aitortu du.

“Ez lidake ardura izango denboraldi baterako hemen gelditzea”

Zer gustatu zaizu gehien Londrestik, eta zer, gutxien?

Ez dakit garbi zer erantzun. Gauza ezberdinak egiteko aukera asko eskaintzen dituela, beharbada. Hiri handia izateak abantaila asko ditu. Gauza desberdin asko egiteko aukera eskaintzen du, eta mundu osoko jendea dagoenez, kultura asko ezagutzeko aukera ere bai. Dena den, hiri handia izateak badu bere alde txarra ere. Denbora asko behar izaten da batetik bestera mugitzeko, eta horrenbeste jende ikusteak ere batzuetan estresa sortzen dit. Hala ere, leku lasaiak ere badira, eta beraz, alde onak gehiago dira.

Sentituko duzu zerbaiten falta, baina, ezta?

Bai, gehienbat etxekoen eta lagunuen falta. Eta batzuetan Elgoibarko lasaitasuna ere hartuko nuke.

Elgoibartik lagunuen bat bisitan joango baltzaizu, zer da hutsik egin gabe erakutsiko zeniokeena? Turismo gida guztietan agertzen denaz aparte, zer da derrigor ikusi beharrekoa?

Ezagunenak diren leku turistikoak, esate baterako, derrigor ikusi behar dira, hemen egon zarela esateko ere: Big-ben, Picadilly, Trafalgar Square, Tower Bridge... Era berean, asteburuetan hirian zehar egiten diren merkatuak (Spitalfields, Camden, Brick Lane...) ere ikusi beharrekoak dira. Baita estilo desberdineko musika zuzenean entzuteko aukera eskaintzen duten hainbat lokal ere.

Zelan ikusten gaituzte hor euskaldunak?

Lanean ezagutu ditudan londrestarren artean denetik topatu dut, baina orokorrean denek dute Euskal Herriaren berri. Zenbaitetik, gainera, Elgoibar ere ezagutzen dute, horko enpresaren baten egon izan direlako lanean noizbait. Oso oroitzapen ona dute, gainera, gure herriaz. Lanetik kanpora, txinatar eta italiar asko ere ezagutu ditut, eta denek dute Euskal Herriko historiaren ideia lauso bat, dela norbaiti entzun diotelako edo dela noizbait Euskal Herrian izan direlako.

Esaten den bezain itxiak al dira horkoak?

Nik ere entzuna nuen topiko hori hona etorri aurretik, baina aitortu beharra daukat sekulako sorpresa hartu dudala. Jendea eza-

gutu ahala jabetu naiz ez direla horren itxiak, eta beti daudela laguntzeko, hitz egiteko edo edozer azaltzeko prest.

Badago lanik Londresen?

Beste edonon bezala, hemen ere nahikoa estu dabilta, krisia dela-eta. Hala ere, irakurri dudanaren eta hortik iritsi zaizkidan albisteen arabera, nik animatuko nuke jendea hona etortzera, niretzat behintzat esperientzia oso aberasgarria izaten ari delako. Lan egin, ingelesa hobetu eta esperientzia berri bat bizitzeko aukera oso ona da.

Bekaldia amaitutakoan hor gelditzerik pasa zaizu burutik?

Egia esan, horko lan egoera zein den jakinda, ez lidake ardura izango denboraldi baterako hemen gelditzea, lanen bat topatuko banu.

Badakazu kontatzeko moduko anekdotarik?

Anekdotak bitxirik ez daukat, baina bai gauza kurioso bat. Eskoziako mutil bat ezagutu nuen behin, eta Euskal Herrikoa nintzela esan nionean euskaraz hasi zitzaidan. Harrituta gelditu nintzen. Euskal Herria ezagutzen zuen, lagunak zituen hor, eta egia esan, euskara maila txukuna zuen. Baina ez zen lehenengo aldia izan. Aurrez, asturiar batekin berdina pasatu zitzaidan. Ikargaria izan zen asturiar azentuko euskara entzutea!





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14-16 behea
☎ / Faxe: 943 74 10 71

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxe: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxe: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Killimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76/608 774 032



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

Lanusta

Etxe barruko erreformak
☎ 636 375 323
www.lanusta.com



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Udaberri-uda denboraldi berria

Udaberria ate joka dugun honetan, Elgoibarko dendak hasi dira denboraldi berrirako arropa berriak aurkezten: soineko arinak, tirantedun kamisetak, galtza motzak, minigonak eta oinetako arinak. Elgoibarko dendetan aukera paregabea duzu armairua berritzeko edota behar duzun hori eskuratzeko.



OINEZ
Umeen zapata denda

Bernardo Ezenarro, 2 behea
20670 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 031 101

DENBORALDI BERRIA!

Oinetakoak 39-40 zenbakira arte
Larunbat arratsaldeetan irekita





LEVI'S
GIAD BIMI!
Landos
PRIMIGI
CAMPER
GEOX
GUESS





IRIONDO KIROLAK

ELGOIBAR
Mendi eta kirol
moda

